

Ezkontza-kopurua % 43,3 jaitsi da 2020ko hirugarren hiruhilekoan

Abuztuan ezkontzak % 51,9 jaitsi ziren

2020ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 1.474 ezkontza izan ziren, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 43,3 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

COVID-19aren krisiak eragindako mugikortasun-murrizketen eta, agian, beste faktore batzuen ondorioz, ezkontzen beherakada nabarmena izan da udako hilabeteetan: % 43,7 uztailan, % 51,9 abuztuan eta % 39,9 irailean.

Ezkontza-kopuruak behera egin zuen hiru lurraldeetan: Araban 196 izan ziren (-% 49,1), Gipuzkoan 482 (-% 46,4) eta Bizkaian 701 (-% 40,9). Beste alde batetik, 95 bikotek bizilekua Euskal AEtik kanpo kokatu zuten.

Ezkontza guztietatik 47 sexu bereko pertsonen artekoak izan ziren –32 emakumeen artekoak eta 15 gizonen artekoak–, eta besteak, 1.427, ezkontza heterosexualak.

2020ko hirugarren hiruhilekoan, 10 ezkontzatik 9 zibilak izan ziren, % 90,4. Ezkontza zibilen ehunekoa ehuneko 8,1 puntu handiagoa izan zen 2019ko aldi berekoa baino.

2020ko hirugarren hiruhilekoko 1.474 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 1.390 gizonetako eta 1.423 emakumezko ezkondu ziren. 1.130 senarrentzat (% 81,3), lehen ezkontza izan zen; 15 alargun eta 245 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren. Emakumeen lehen ezkontzen ehunekoa gizonena baino handiagoa izan zen; aurretik ezkondu gabe zeuden emakumeak 1.184 izan ziren (% 83,2), alargunak 12 eta dibortziatuak 227.

Atzerriko nazionalitatea duten ezkontideen ehunekoa, goraka

Ezkontideen adinaren arabera banaketari dagokionez, senarren % 93k eta emazteen % 84,5ek 30 urtetik gora zituzten. 2019ko aldi berean, ehuneko hori % 89,2koa izan zen gizonen artean eta % 80koa emakumeen artean; beraz, igoera 3,8 eta 4,5 puntukoa izan da, hurrenez hurren.

2020ko hirugarren hiruhilekoan, gizon ezkonberrien % 10ek eta emakume ezkonberrien % 14,4k atzerriko nazionalitatea zuten. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, gizonen artean ehuneko 1,7 puntu igo da, eta emakumeen artean 1,8.

Euskal AEko ezkontzak egoitzako lurralde, sexu, aurreko egoera zibil, eta ospatzeko moduaren arabera (1)


	Oraingo hiruilekoa (2020/III)		Aurreko hiruilekoa (2020/II)		Aurreko urteko hiruh. bera (2019/III)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.474	100,0	460	100,0	2.600	100,0
Araba / Álava	196	13,3	51	11,1	385	14,8
Bizkaia	701	47,6	226	49,1	1.187	45,7
Gipuzkoa	482	32,7	161	35,0	900	34,6
Euskal AEtik kanpo	95	6,4	22	4,8	128	4,9
<u>Homosexualak</u>	47	3,2	23	5,0	64	2,5
Gizon artean	15	1,0	8	1,7	27	1,0
Emakume artean	32	2,2	15	3,3	37	1,4
<u>Heterosexualak</u>	1.427	96,8	437	95,0	2.536	97,5
Kanonikoak	141	9,6	11	2,4	461	17,7
Zibilak	1.286	87,2	426	92,6	2.075	79,8
SENARGAIK	1.390	100,0	433	100,0	2.432	100,0
Ezkongabeak	1.130	81,3	345	79,7	2.090	85,9
Alargunak	15	1,1	6	1,4	16	0,7
Dibortziatuak	245	17,6	82	18,9	326	13,4
< 30 urte	97	7,0	34	7,9	263	10,8
30 - 39 urte	612	44,0	152	35,1	1.253	51,5
≥ 40 urte	681	49,0	247	57,0	916	37,7
Espainiarrak	1.251	90,0	351	81,1	2.230	91,7
Atzeritarrak	139	10,0	82	18,9	202	8,3
EMAZTEGAIK	1.423	100,0	450	100,0	2.467	100,0
Ezkongabeak	1.184	83,2	350	77,8	2.168	87,9
Alargunak	12	0,8	6	1,3	12	0,5
Dibortziatuak	227	16,0	94	20,9	287	11,6
< 30 urte	221	15,5	56	12,9	521	21,4
30 - 39 urte	651	45,7	177	40,9	1.232	50,7
≥ 40 urte	551	38,7	217	50,1	714	29,4
Espainiarrak	1.218	85,6	337	77,8	2.161	88,9
Atzeritarrak	205	14,4	113	26,1	306	12,6

(1) Oraingo eta aurreko hiruilebeteko datuak behin-behinekoak dira

Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Euskal AE ezkontzak, hilabeteka

Hileroko datuak



Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62